

Getxo >MEETING<



Otsailak 25

"Planteatu zure sakelako merkataritza-plana 2024rako" saioan egindakoa.

Parte-hartzaile bakoitzak ibilbide-orri bat eraman zezan, lehenik eta behin nork bere enpresaren hainbat alderdiri buruzko hausnarketa egin behar izan zuen; eta galdera irekiek eraman gintuzten ideiak, planteamenduak eta helburuak idatziz islatzera.

Zertarako?

- Idazteak adimena egituratzea ahalbidetzen du, pentsamenduaren gurrpil zorotik irtetea eta, beraz, ekintza errazten du. Gauza berriei lekua uzten dielako.
- Helburuak adierazteak hobeto konprometitzen zaitu helburu horiek betetzera. Pentsamenduak konturatu gabe aldatzen direlako eta helburu lurrunkorrek izatea arriskutsua delako gero lortu dituzun ala ez jakiteko.
- Batzuetan, idaztean, lehen kontuan izan ez ditugunak bururatzen zaizkigu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Galderak:

- Lortu nahi diren helburu ekonomikoak. (Zenbat eurotik aurrera)
- Badakizkizunak (zer behar duzun, zer nahi zenukeen, zer gustatuko litzaizukeen)
- Ez dakizkizunak (oraindik erantzun gabe dituzun alderdiak)
- Get, grow, forget. Zer bezero lortu nahi dituzun, zeintzuk dituzun eta gehiago fakturatzea nahi duzun, zeintzuk ez zaizkizun bereziki interesatzen.
- Bezero-motaren gaztatxoa. Zatitu gaztatxo batean zenbateko ehuneko fakturatu nahi duzun bezero mota bakoitzarekin.
- Pentsatu zeintzuk diren bezero horien beharrak edo min-puntuak.
- Zaldiaren mugimendua, lankidetzak. Norekin eta zertarako kolaboratu nahi dudun, proiektu osagarri eta asmo handiagokoetara iristeko...

Bizkaiko Flyscharen mapa batekiko analogia ere erabili genuen. Horrela, parte-hartzaileek ibilbide bat egin zuten faseak, geralekuak, interesguneak... zehaztuz. Hau da, plano bat, poltsikoko merkataritza-plan bat.

Plan bat ziurrenik ez da zorrotz beteko, baina bidean galtzen zarenean orientatzen lagunduko dizu.